

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2010eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

HKEEren iritzira, Unibertsitateak zuzentasunez bete du bertako ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; salbuespen dira, ordea, aurrekontu, langileen gastu eta administrazio kontratazioari buruzko hainbat jokamolde.

Langileriari dagokionez, osagarri eta ordainsarien berdintze kontzeptuan 2,2 milioi euro ordaindu dira, unibertsitateko irakasleriaren ordainsariei buruzko indarreko legerian aurreikusi gabe daudenak;

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du EHUK zenbaitetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: obra kontratu bat obretarako udal lizentziarik izan gabe esleitu da; hainbat obra kontratutan hasierako esleipenaren gaineko zenbatekoetan aldaketak izapidetu dira, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratzen dutenak; bi obra kontratutan xedea bidegabe zatikatu da, abiarazitako esleipen prozedurari buruzko betekizunak edo publizitateari dagozkionak saihestuz; eta esleipendun ez diren hornitzaileekin gastuak kontratatu dira, nahiz zerbitzu horietarako indarreko kontratuak izan.

EHUren Kontuei dagokienez, Epaitegiak uste du horiek egoki erakusten dutela aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondotik adierazitako salbuespen hauekin:

EHUK ez dauka konpromiso-kredituen egoerarik.

-Batetik, EHUK ez ditu berrikusi Berriazko Geldikina osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugariak eta bestetik, ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko

kontrola eskasa izan da; honek guztiak eragotzi egiten du horren zuzentasunaren gaineko ondoriorik ateratzea.

-Diruzaintza Geldikina eta Berariazko Geldikina, hurrenez hurren, 10,9 eta 9 milioi euroan murrizten duten doiketak egin dira, Gastu Orokorretarako Geldikina 1,9 milioi euroan gehitzen dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate eta administrazioko kontratazioaren alorretan.

Finantza analisiak erakutsi du 2010eko ekitaldiaren Emaizta Arruntak behera egin duela 2009koarekiko, gastu arrunta hazi delako, batik bat Itzarri BGAeri egindako ekarpenak erregistratu direlako 2010ean, 2004tik 2010era bitarteko ekitaldiei dagozkienak. Zorpetze mailak nabarmen egin du gora 2008ko ekitaldiarekiko; hori dela eta, horrek berekin dakarren finantza zamak kinkan jar ditzake datozen ekitaldietako emaitzak. Berebat, adierazi behar dugu Gastu Orokorretarako Geldikinak 2009 eta 2010ean bilakaera positiboa izan duela, nahiz hori horrela izan den ekitaldi hauetan 2008an kontabilizatutako gastuak finantzatzeko diru-sarrerak erregistratu direlako.

Amaitzeko, txostenak bilakaera akademiko eta irakaskuntzakoari buruzko atal bat barne hartu duela esan behar dugu; bertan, lurralde historiko bakoitzeko zentro eta titulazio kopurua zehazten da eta 2005-2006 ea 2010-2011 ikasturteen artean matrikulatutako ikasle berrien alderaketa egin da.